



EFA 134/09 INNOV MUGABE

Enpresa txiki eta ertaintan berrikuntza proiektuen diagnostikoak egiteko A3 INNOV MUGABE Programaren Erregulazioa

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK.....	3
2. PROGRAMAREN HELBURUA	4
3. MODALITATEA ETA KOPURUA.....	4
4. ELKARTE ONURADUNAK.....	4
5. DIAGNOSTIKO TEKNOLOGIKOAK EGITEKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	5
6. ZERBITZUEN ENPRESA HORNITZAILEAK.....	6
7. A3 INNOV MUGABE PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERA	6
7.1. Eskaeren aurkezpena	7
7.2. Bete beharreko epeak	7
7.3. Harremana eta zalantzak.....	7
8. ESKAEREN EBALUAZIOA ETA EBAZPENEA.....	8
9. KITATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO ESKAERA.....	8
10. ELKARTE ONURADUNEN BETEBEHARRAK	10
11. EZ BETETZEAK.....	10
12. PROGRAMAREN PUBLIZITATEA ETA HEDAPENA	11
13. PROGRAMAREN GAINEKO JARRAIPENA.....	11

ESKAERA EGITEKO ERANSKINAK ETA DOKUMENTAZIOA

I. ERANSKINA: Proiektuan parte hartzeko eskaera-orria

II. ERANSKINA: Enpresa onuradunaren Legezko Ordezkariaren Ardurapeko Adierazpena

III. ERANSKINA: Enpresa hornitzailearen Legezko Ordezkariaren Ardurapeko Adierazpena

IV. ERANSKINA: Parte hartzeko gutuna¹

- **Enpresa onuradunaren** legezko ordezkariaren NANaren kopia
- Zerbitzua **eskaintzen** duen enpresaren legezko arduradunaren NANaren kopia.
- **Enpresa onuradunak** Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak beteta dituela adierazten duen egiaztagiria.
- **Enpresa hornitzaileak** Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak beteta dituela adierazten duen egiaztagiria.

KITATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO ERANSKINAK ETA DOKUMENTAZIOA

V. ERANSKINA: Bilkura-akten eredua

VI. ERANSKINA: Kitapenerako memoria eta Proiektu amaierako adostasuna

VII. ERANSKINA: Hornitzaileak aurkeztu beharreko fakturaren eredua

¹ Bidasoa bizirik enpresa onuradunari aldeko erabakia hartu duela jakinarazi ostean bete eta eman beharrekoa.



1. AURREKARIAK

Egungo testuingurua.

Egungo egoera ekonomikoaren aurrean eta 2014-2020 eperako Estrategia Europarrarekin bat eginik, gero eta beharrezkoagoa da elkarlanaren eta berrikuntzaren bidez tokiko enpresa ehunaren aukerei eta gaitasunei halako balioa ematea.

Innov Mugabe, Mugarik gabeko Berrikuntza, besteak beste 2007-2013 Espainia-Frantzia-Andorra Lurraldeen arteko Lankidetzeta Programak finantzatua, 2010. urteaz geroztik ari da lanean mugaldeko proiektuei begira garapen Eredu sistematiko eta berritzaile baten bila. Proiektu honek mugaz gaindiko integrazioa sendotzea bila du, eta horretarako halako balioa ematen die jarduera ekonomikoen, berrikuntzaren eta giza baliabideen esparruko kontu osagarriei.

Inguruko lurraldeko enpresa ehunaren lehiakortasuna hobetzeko ikuspuntutik ekiten zaio proiektuari, mugaldean egokiturik probestu eta sustatu egin behar baitira sortzen diren aukerak oro. Bazkideen eta enpresen arteko lankidetzan oinarritutako bi ekintza motatan bereiz daiteke proiektuaren edukia:

- 1.- informazioa eta ezagutza kudeatzeko dauden tresnak partekatzea eta,
- 2.- enpresen artean proiektu esperimentalak bultzatuta mugaz gaindiko lankidetzarako loturak sortzea eta sendotzea.

Innov Mugabe Proiektuaren baitan bada ekintza zehatz bat enpresen, unibertsitateen, zentro teknologikoen eta lanbide hezkuntzari emandako ikastetxeen arteko elkarlanak sustatzen dituen, lehiakortasunean hobetzeko proiektu berritzaileak bultzatzeko xedean. Eta horixe da deialdi honen helburua, diagnostiko/ikuskapen teknologiko bat egin ahal izatea enpresaren lehiakortasuna hobetzeko, ekoizpen prozesuak hobetzeko, merkatua anizteko edo, besterik gabe, produktu berrien merkaturatzea aztertzeko.

Programan parte hartuta, honako aukera hauek daude:

- Proiektu jakin baten aurrean enpresak bizi duen egoera hobe ezagutzeko (alde sendoak, ahulak, mehatxuak eta aukerak)
- Merkatuaren ezaugarrien eta enpresaren gaitasunaren eta beharizanen araberako aukerak eta hobetzeko eta berritzeko proiektuak identifikatzeko.
- Balizko laguntzaileak edo/eta aliatuak identifikatzeko eta, gero, beste enpresekin edo/eta ezagutza-zentroekin elkarlanean proiektuak abiarazteko laguntza izateko.



2. PROGRAMAREN HELBURUA

Programa honek berrikuntzarako eta lehiakortasunaren hobekuntzarako ekintzak, gauzatze eta eragin azkarrekoak baldin badira, sustatzeko diagnostiko teknologikoen zerbitzuen eskaintza finantzatzea du xede. Ekintza horiek Irun eta Hondarribiko enpresen beharizan zehatzei erantzun behar diete. Zerbitzu hauek diagnostikatu beharreko alorrean espezialistak diren enpresa hornitzaileek eskainiko dituzte.

3. MODALITATEA ETA KOPURUA

- Programa honetarako bideratutako diruzko baliabideak Innov Mugabe Proiektuan (EFA 134/09 erreferentzia), besteak beste 2007-2013 Espainia-Frantzia-Andorra Lurraldeen arteko Lankidetzeta Programak finantzatuan, xede horri begira ezarritako aurrekontu-sailetik etorriko dira.
- 50.000 eurokoa da (BEZa at) proiektua abiarazteko eta 5 Puntuaz azaldutako diagnostiko-proiektuak gauzatzeko aurrekontuaren guztizkoa. Kopuru hori 2013. urteko ekainaren 30era arte egongo da eskuragarri, eta 10 proiektu-enpresa onuradunen artean banatuko da.
- 5.000 eurokoa izango da (BEZa at) hornitzaileak eskaintako zerbitzuaren kostua, eta kopuru hori ekainak 12 baino lehen fakturatu beharko da. Laguntzen zenbatekoak %100ean estaltzen du kostu hautagarria.
- Hornitzaileak zuzenean Agencia de Desarrollo del Bidasoa, S.A. (Bidasoa bizirik) elkarteari igorriko dio 5.000 euroko faktura + BEZa, betiere VII. Eranskinean adierazitako fakturaren ereduari jarraiki.
- Zerbitzuen hornitzaile bakoitzak ezingo du deialdi honen esparruan diagnostiko-proiektu bi burutu edo 10.000 euro baino gehiago bildu.
- Enpresa onuradunek bilatu eta aukeratu beharko dute diagnostiko teknologikoa zerbitzua eskainiko dien hornitzailea.
- Enpresa onuradun bakoitzak diagnostiko teknologiko bakar bat egiteko laguntza jaso ahal izango du Programa honen baitan.

4. ELKARTE ONURADUNAK

Diagnostiko Teknologikoak egiteko aukera izango dute enpresa oso-oso txikiek, txikiek eta ertainek Innov Mugabe proiektuaren filosofia aintzat hartuta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Enpresa oso-oso txikia, txikia edo ertaina izatea².
2. Elkartearen helbidea Irunen edo Hondarribian egotea.
3. Innov Mugabe proiektuaren esparruan aurreikusitako sektoreetako batean jardutea (jan-edatekoak; kirola, ur-kirolak eta aisia; industria; sorkuntza-industria; zerbitzuak enpresei; garraioa, turismoa).
4. Produktuaren eta prozesuaren lehiakortasuna hobetzeko eta nazioartera zabaltzeko berrikuntza proiektu bat identifikatuta edukitzea. Ekintzailertzan, berrikuntzan eta lankidetzan adituak diren kideek osaturiko Batzorde betearazle batek ebaluatuko du berrikuntza proiektua.
5. Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea.
6. Jarraian adierazten diren egoeretatik batean ez egotea:
 - Laguntza publikoak jasotzeko edo Administrazioarekin kontratatuzko debekua izatea edo gaitasungabetua izatea.
 - Europar Batzordeak barne merkatuaren aurrean laguntza bat legez kanpoko eta bateraezina zela ebatzi eta gero oraindik ordaindu gabeko laguntzak berreskuratzeko agindua jaso izatea.
 - 1/1997 Dekretu Legegilearen 50. artikuluan edo 38/2003 Legearen 13. artikuluan azaldutako ustezkoetan egotea, horien arabera ez baitu diru-laguntza publikoak jasotzeko onuradunaren baldintzak betetzen.
 - Krisian egoeran dagoen enpresa izatea, ez bada 2008ko uztailaren 1aren ostean etorritako krisialdi ekonomiko eta finantzario orokorraren ondoriozko egoera.
 - Lehiakortasunaren jokia galarazten, mugatzen edo faltsutzen duten praktikak egitea.
 - Armak ekoizteko, merkaturatzeko eta finantzatzeko jardunari emana izatea.

5. DIAGNOSTIKO TEKNOLOGIKOAK EGITEKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

A3 INNOV MUGABE programak bertan parte hartzen duten enpresentzako edo enpresa onuradunentzako laguntza teknikoak baizik ez du aurreikusten. Laguntza hori lehiakortasuna hobetzeko prozesuetan espezializatuak diren zentroek edo enpresa espezializatuak eskaintzen dute parte hartzaileek erabiltzen dituzten teknologiak ebaluatzeko diagnostiko teknologikoak eginik eta, gero, enpresan hobetzeko edo teknologia garatzeko proiektuak burura eramateko lana aurrera eramanez.

Innov Mugabe proiektuaren esparruan, diagnostiko teknologikoa egin arte eta hobetzeko plana proposatu arte lagunduko zaio enpresari, baina enpresaren esku geratuko da aipatu plana burura eramateko lana. Plana burura eramanez gero, haren bitartekoekin gauzatu beharko du edo Innov Mugabe proiektuak aurreikusten EZ dituen beste laguntza batzuk baliatuta.

² 250 baino langile gutxiago dauzkatenak eta urtean 50 milioi euroko negozio-bolumenera iristen ez direnak, edo urteko balantze orokorrean 43 milioi euroko kopurura iristen ez direnak.

ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK (soluzio praktikoak eta ekintzaren aurreko gogoeta batzuk):

1. Produktu eta prozesuen berrikuntzaren bidez lehiakortasunaren alorrean hobetu; ekoizpenaren errendimenduak azkartuz eta hobetuz prozesu eta produktu berritzaileen garapenean lagundu.
2. Zerbitzuen alorreko berrikuntzaren bidez lehiakortasuna hobetu; negozio unitate berrien sorrera bultzatu; barne prozesuak hobetu.
3. Industria Jabetza eta Patenteak babesteko diagnostiko teknologikoak.

GASTU HAUTAGARRIAK: Gastu hautagarriak dira zerbitzu espezializatueta hornitzaileek eskaintako aholkularitzatik, laguntzatik edo tutoretza profesionaletik eratorritako ordainsariak.

6. ZERBITZUEN ENPRESA HORNITZAILEAK

Honako hauek izan daitezke zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia eta Teknologia Sareko agenteak.
- EAEko Zerbehar sarean ari diren lanbide hezkuntzarako zentroak.
- Ingeniaritza espezializatuak eta zerbitzu aurreratuei emana dauden beste enpresak.
- Beste zentro teknologiko batzuk.

Enpresa onuradunei begira 4. Ataleko 5. eta 6. puntuetan zehaztutako baldintza berberak bete beharko dituzte horiek guztiek.

7. A3 INNOV MUGABE PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

Programa honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten elkarrekin Innov Mugabe programaren web orrian dauden eskaera-orriak bete eta igorri beharko dituzte. Honako hauek dira:

- **I. eranskina: Proiektuan parte hartzeko eskaera-orria.**
- **II. eranskina: Enpresa onuradunaren Legezko Ordez kariaren Ardurapeko Adierazpena.**
- **III. eranskina: Enpresa hornitzailearen Legezko Ordez kariaren Ardurapeko Adierazpena.**

Formulario horrekin batean, honako dokumentazio osagarri hau aurkeztuko dute:

- a) **Enpresa onuradunaren legezko ordez kariaren NANaren kopia.**
- b) **Enpresa hornitzailearen legezko ordez kariaren NANaren kopia.**



c) Enpresa onuradunak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak beteta dituela adierazten duen egiaztageria.

d) Enpresa hornitzaileak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak beteta dituela adierazten duen egiaztageria.

I. eranskinak, Proiektuan parte hartzeko Eskaera-orriak, enpresa onuradunari eta hornitzaileari eskatutako datuez gainera, burura eraman beharreko diagnostiko teknologikorako proposamenaren Deskripzio Teknikoa jasotzen du, horri begira prestatutako ereduaren arabera.

Elkarte onuraduna ordezkatzeko nahikoa eskuduntza duen pertsonak izenpetuko eta zigilatuko du Eskaera, eta arestian azaldutako dokumentazioarekin batean aurkeztuko du.

7.1. Eskaeren aurkezpena

Gisa honetan aurkeztuko dituzte beren eskaerak elkarte onuradunek:

- zuzenean, Bidasoa biziriken bulego nagusietan: Iparralde etorbidea - Kostorbe etxea z/g, 20302 Irun.

- izenpetutako, zigilatutako eta eskaneatutako dokumentazioa honako e-posta honetara igorri:

economia@bidasoa-activa.com

[Dokumenturen bat faltako balitz edo behar bezala osatu gabe balego, beharreko zuzenketa eskatuko litzaioke eskaera egiten duen enpresari, eta martxoak 1 arte izango lituzke horretarako.]

7.2. Bete beharreko epeak

Eskaeren aurkezpena:

Innov Mugaberen web orrian (www.bidasoa-sudpaysbasque.com) aurkezten den egunetik hasita 2013ko **otsailaren 25era arte**.

Proiektuen abiaraztea: laguntza onartu eta gero hasiko dira zerbitzuak eskaintzen.

Proiektuak burutzeko epea: 2013ko ekainak 12 baino lehen.

7.3. Harremana eta zalantzak

Edozein kontsulta egiteko jar zaitez harremanetan

Bidasoa biziriken Ekonomia. Azterlanak eta Berrikuntza Departamentuarekin.

E-posta: economia@bidasoa-activa.com

Tel.: 943 633 076



8. ESKAEREN EBALUAZIOA ETA EBAZPENA

Ekintzailertzan, berrikuntzan eta lankidetzan aditua den talde batek osatutako Batzorde Betearazle bat sortuko da eskaerak ebaluatzeko eta ebazteko. Laguntzaile horietako bakar batek ere ezingo du programa honen baitan zerbitzuen enpresa hornitzailearen bat ordezkatu.

Barne bilkura baten agirira jasoko dira ebaluazio eta ebazpen honen aurreko erabakiak. Agiri honetara, beste erabakien artean, onartutako eta baztertutako proiektuak jasoko dira. Batzorde Betearazleak aurrez Check List batean zehaztutako irizpideetan oinarrituko da proiektuen ebaluazioa.

Ebaluazio prozesuan zehar beren jardueretan aldaketa batzuk egiteko iradoki ahal izango zaie eskaera egileei, jarduera horiek hobe egokitu dakizkien aurrez ezarritako helburuei.

Ebazteko epea: E-posta bidez jakinaraziko zaio enpresa onuradunari erabakien berri **martxoak 12 baino lehen**. Epe horretan erabakiaren berri jaso ez bada, eskaera ukatua izan dela ulertuko da.

Bidasoa bizirik eramango du burura eskaeren aurreko ebazpena zuzeneko esleipenaren erregimenean, eta Parte Hartzeko Gutunaren bidez formalizatuko da hura. Gutun hori Bidasoa bizirik, enpresa onuradunak eta aholkularitza eta laguntza zerbitzuen hornitzaileak izenpetuko dute diagnostiko teknologikoa egin ahal izateko (IV. eranskina).

Aldeko erabakia jasota, enpresa onuradunak harremanetan jarri beharko du eskaera-orrian proposatutako zerbitzuen hornitzailearekin, zerbitzua eskaintzen hasteko. Batzorde Betearazleak espresuki baimendu gabe sekula ere ezin izango da beste hornitzaile bat baliatu. Une horretan **Parte hartzeko Gutunaren** bi kopia izenpetu emango dizkio enpresa onuradunak Bidasoa biziriki (IV. eranskina).

Behin proiektua esleitu eta gero, enpresa hornitzaileak zerbitzuak eskaintzeko kontratu bat izenpetuko du Bidasoa bizirikekin.

2013ko ekainak 12an amaitzen da zerbitzua burura eramateko eta hura egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko eguna.

Horrez gain, programa ezagunagoa izan dadin, Innov Mugaberen web orrian (www.bidasoa-sudpaybasque.com.) adieraziko dira zein diren programa honetan parte hartzen duten enpresak eta ezagutza-zentroak.

9. KITATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO ESKAERA

Programaren arabeko jarduera amaitu eta 2013ko ekainaren 12 baino lehen, jarduerak justifikatzeko honako dokumentu hauek igorriko dizkiote enpresa onuradunek Bidasoa biziriki:

- **V. ERANSKINA: Bilkura-aktak:** finkatutako ereduaren arabeko agiriak, zerbitzua eskaintako aholkularitzarekin egindako bilkuretatik eratorriak.



- **VI. ERANSKINA: Kitapenerako memoria eta Proiektu amaierako adostasuna:** enpresa onuradunaren legezko ordezkariak izenpeturik eta zigilatuturik.

- **VII. ERANSKINA: - Enpresa hornitzailearen faktura:** finkatutako ereduaren arabera.

Batzorde Betearazleak txostena onartu eta gero, dagokion faktura ordainduko dio Bidasoa bizirik zerbitzua eskaini duen enpresari.

10. ELKARTE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasuna Antolatzeko Printzipioen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen 50. artikuluan aurreikusitakoaz gain, honako betebeharrak hauek izango dituzte elkarte onuradunek:

- a) Modu aktiboan jardungo dute A3 Innov Mugabe programaren helburuak lortzeko.
- b) Lehiakortasuna hobetzeko xedean, A3 Innov Mugabe programaren esparruan eskaintzen diren zerbitzuak baliatuko dituzte.
- c) A3 Innov Mugabe programaren gaineko kontrola, jarraipena eta bilakaera aztertzen duten organoek prestatutako inkestei edo bestelako eskaerei erantzuniko diete.
- d) Programan parte hartzeko eskatutako baldintzetako batean eragina izan lezakeen edozein gorabeheraren berri emango diote Bidasoa biziriki.
- e) Bidasoa bizirik egoki irizten dituen beste dokumentu batzuk eska diezazkiekeela onartuko dute, eta onartuko ere dute aipatu erakundeak izendatutako langileek programarekin lotutako jarduerak egiaztatzeko xedean egoki irizitako lanak egitea.
- f) Programa amaitzen denetik kontaktzen hasita gutxienez hiru urtez kontserbatuko dute enpresa onuradunek programa honetan parte hartu izana egiaztatzen duen dokumentazioa.

11. EZ BETETZEAK

Ez betetzeak dira:

- a) Eskatutako dokumentazioa epe barruan ez aurkeztea eta Programa honetan eskatutako baldintzak ez betetzea.
- b) Proiektua burura eramateko finkatutako epeak gainditzea, tartean hura aldatzeko edo luzatzeko baimenik ez baldin badago.
- c) Proiektuan zehaztutakotik desbideratzea edo parte hartzeko eskaeraren aurreko erabakian finkatutako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

Bidasoa Biziriki dagokio ez betetzea egiaztatzeko espedienteari hasiera ematea, hura tramitatzea eta dagokion txostena egitea.

Elkarte onuradunek oinarri hauetan finkatutako baldintzetako bat beteko ez balute, galdu egingo lukete emandako laguntza eskuratzeko eskubidea.



12. PROGRAMAREN PUBLIZITATEA ETA HEDAPENA

Hedapen eta gardentasun erabatekoa bermatzeko xedean, Innov Mugaberen web orrian (www.bidasoa-sudpaysbasque.com) eta Bidasoa bizirikenean (www.bidasoa-activa.com) argitaratuko da deialdia, baita prentsa idatzi nagusietan eta ezinbestekotzat jo daitezkeen hedabide nahiz euskarrietan ere.

13. PROGRAMAREN GAINKO JARRAIPENA

Kitatu eta 6 hilabetera enpresa onuradunaren gaineko jarraipen lanak egingo ditu Bidasoa bizirik, eta dagokion txostena idatziko du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– **PUBLIZITATEA.** Elkarre onuradunek Programa honekin zerikusia duten argitalpen edo promozio jardura guztietan emango dute Europar Batasunaren FEDER Funtsetako Innov Mugabe EFA 134/09 Proiektuaren eta 2007-2013 Espainia-Frantzia-Andorra Lurraldeen arteko Lankidetzaren Programaren eskutik jasotako laguntzaren berri, Europar Batasunaren CE 1828/2006 Arautegiaren 8. eta 9. artikuluetan xedaturikoaren arabera.

Bigarrena.– **KONFIDENTZIALTASUNA.** Ez da enpresari Innov Mugabe proiektuaren esparruan egindako diagnostiko teknologikoaren edukiaren berri emango, enpresak hura ezagutarazteko baimena espresuki ematen ez badu.